

*Galdera bakoitzean proposatzen diren bi aukeretako bati erantzun.

*Aukeratutako 4 galderetatik, bi teorikoak izango dira, eta beste bitan lanen analisisa eta iruzkina egin beharko dira.

*Galdera bakoitzak 2,5 puntu balioko du, gehienez ere.

1. ARTE KLASIKOA

a) Arkitektura grekoa: “Partenoia”:

- Egin lanaren analisisa (testuingurua, eraikitze sistema, espazioa, hizkuntza formala...), eta esan zein diren lan horretan ikusten diren arkitektura grekoaren ezaugarriak.

b) Eskultura erromatarra. Erretratua:

- Erretratu erromatarren jatorria eta ezaugarriak.
- Bilakaera eta adibideak.

2. ERDI AROKO ARTEA

a) Eskultura erromanikoa:

- Ezaugarri definitzaileak: hizkuntza formala, gaiak, eskultura-generoak, helburua...
- Aipa itzazu eskultura erromaniko monumentalaren adibideak.

b) Pintura gotikoa: Juan Van Eyck-en "Arnolfini senar-emazteak":

- Egin lanaren analisisa (testuingurua, gaia eta analisi formala), horren bidez nabarmenduz antzinako flandestarren eskolaren ezaugarriak eta lorpenak.

3. ARO MODERNOA

a) Italiako Cinquecentoko arkitektura errenazentista

- Ezaugarri orokorrak: eraikuntza-elementuak, espazioa, motak, hizkuntza formala...
- Mintza zaitetz Italiako Cinquecentoko arkitekto batez eta bere lanaz.

b) Pintura barrokoa: Velázquez-en “Meninak”:

- Egin lanaren analisisa (testuingurua, gaia eta analisi formala), horren bidez adieraziz pintura barrokoaren ezaugarriak eta bereziki Velázquez-en ekarpen handiak.



4. ARO GARAIKIDEA

a) XX. mendeko arkitektura arrazionalista: Le Corbusierren “Ville Savoie”

- Egin lanaren analisisa (testuingurua, premisak, materialak, eraikitze sistema, hizkuntza formala), eta azaldu horren bidez zein diren arkitektura horren eta bere egilearen bereizgarriak eta berrikuntzak.

b) Pintura inpresionista:

- Inpresionismoaren alderdi berritzaileak edo pintura modernoari egin zizkion ekarpenak (alderdi formalak, teknikoak eta gai buruzkoak).
- Monet.



“El Partenón”.



“Las Meninas” de Velázquez



"El matrimonio Arnolfini". Juan Van Eyck



"Villa Saboya". Le Corbusier

